

## **SEME-ALABA EUSKALDUN ELEANIZTUNEN GURASOENTZAKO PROPOSAMENAK ETA AHOLKUAK**

*GU BAI GURASO BERRITSUAK*

### **LAGUNARTEAN ERE EUSKARA ERABIL DEZATEN, LAGUNDU SEME-ALABEI**

Hainbat gurasok nahi dugu gure seme-alabek euskaraz egitea lagunartean eta beste hainbat harremanetan. Kontuan izan: euskaraz egitea edo ez egitea ez da aukera bat, oso baldintzatuta dagoen jokabide bat baizik. Hainbat faktorek eragiten dute horretan. Lagundu diezaiegun gure seme-alabei hizkuntza-ohiturekin.

Ezin ditugu seme-alaben hizkuntza-ohiturak erabaki, baina oinarri on bat eskaini diezaiekegu:

- Etxetik hizkuntza aberatsa eskaini
- Hizkuntza ohiturei begira eredu egokiak eskaini
- Euskarazko erreferente eta bizipen asko eskaini

Argi eduki: beraien eguneroko harremanetan euskararen aldeko hautua egitera begira oinarri on bat eskaintzen ari gara baldin eta, euskaraz edozein egoera eta harremanetan erraz eta eroso aritzeko gai izatera iristen badira, inguruan hizkuntza-ohiturei begira eredu egokiak jaso badituzte, eta euskaraz bizipen eta erreferente asko badituzte. Saiatu gaitezen horretan, beraien onurarako izango da eta merezi du.

## Etxetik hizkuntza aberatsa eskaintzea

---

Edozein harreman eta egoeretan euskaraz eroso eta erraz aritzeko gaitasuna izatera begira, etxetik euskara aberatsa eskaintzen ahalegintzea da oinarrietako bat. Eskola beharrezkoa da honi begira, baina euskaraz dakigun gurasook ere zeregin garrantzitsua dugu seme-alabek euskara aberatsa garatu dezaten.

Etxeko hizkuntza aberatsa duenak erraztasun handiagoa izango da ikasketetan eta beste hizkuntzen ikaste prozesuan. Euskaraz dakigun gurasoon kasuan, gainera, etxetik euskara aberatsa eskaintzeak eragin handia izango du seme-alaben hizkuntza-ohituretan.

### Zer egin dezakegu?

Euskara aberatsa eskaintzeko, hizkuntzarekin jolastu:

- Abestu, ipuinak irakurri edo kontatu, txotxongiloekin jolastu, antzerkiak egin, esaera zaharrak ere erabili, hitz berriak asmatu, bertsozaletasuna sustatu, egunerokotasuneko egoerak simulatuz antzerkitxoak egin, idazteko zaletasuna landu...

Mila gauza egin daitezke, baina bereziki **gure jarrera da garrantzitsua**: beraiekin asko hitz egin, hitz egiten utzi, galdetu, kontatu, proposatu, azaldu, iritzia eskatu, eta abar. Adibidez:

- Etxean, jatorduetan, ez jarri telebistarik eta kontu kontari aritzeko baliatu
- Kalean, beste heldu batzuk beraiekin hitz egiten dutenean, utzi beraiei erantzuten. Are gehiago, beraiek hitz egin dezaten egoerak bilatu edo sortu (dendetan, ezagunekin topo egitean, eta abar).
- Hizketan ari garenean, zerbait azaldu nahi badigute, eman denbora, utzi eroso azaltzen eta laguntza behar badute eskaini.

## Hizkuntza-ohiturei begira eredu egokiak eskaintzea: guraso Ahobizi eta Belarriprestak

---

Hizkuntza-ohiturei begira gurasook eragin handia dugu. Seme-alaben hizkuntza-ohiturak axola bazaizkigu eredu izaten saiatu behar dugu.

Eredu izatea gure jarrerekin koherente izaten saiatzea da eta euskararen erabilerearekiko jarrera aktiboak izatea.

Gure hizkuntza-jokabideak zaintzen baditugu seme-alabek ere hori ikusiko dute. Hau da:

- Ahalik eta harreman gehien euskaraz izatea: gero eta gehiago.
- Euskarazko elkarrizketak benetan euskaraz izatea, eta euskara eta gaztelania ez nahastea.

### Adibidez:

- Nola egiten dugu euskaraz dakiten beste gurasoekin? Nahiko ondo dakitenekin? Ulertzen dutenekin?
- Nola egiten dugu euskaraz ez dakiten gurasoen seme-alabekin?
- Zenbat gaztelania erabiltzen dugu euskarazko elkarrizketetan gure lagunekin edo bikotekidearekin?
- Azkeneko bi-hiru hilabetetan zenbat egoera edo harreman saiatu gara euskaraz sortzen? (denda batera sartzean, telefonoz norbaiti deitzean...)
- ...

Horrelako egoerak zaintzea eta urratsak ematea seme-alabei begira eredu izatea da. Bakoitzaren abiapuntua ezberdina izango da, baita ibilbidea ere, baina urratsak ematen ahalegintzen bagara euskararekiko jarrera hori seme-alabek ere ikusiko dute.

Horretaz gain, gure inguruan eredu direnen berri ere eman behar diegu. Ikusi ditzatela eta ezagutu ditzatela Ahobizi eta Belarriprestak beraien inguruan, gurasoengandik hasita.

## Euskarazko bizipenak eta erreferenteak eskaini, zaindu euskararekin harremana

---

Euskara entzun eta bizi behar dute inguruan. Zenbat eta gehiago hobe. Gurasook zeregina dugu horretan.

Euskarazko bizipenak behar dituzte. Hainbat testuingurutan erraza da bizipen horiek eskaintzea baina beste hainbatetan zaindu beharrekoa da. Euskaraz bizipen ugari eta indartsuak izateak eragin zuzena du hizkuntza horrekiko harremanean eta jarreretan.

Erreferenteek ere eragina dute hizkuntza-ohituretan eta jarreretan. Gaztelaniaz erreferenteak ziurtatuta dituzte: inguruan asko entzungo duten hizkuntza da, komunikabideetan pisu handiena duena, eta abar. Euskaraz ere behar dituzte erreferenteak, anitzak eta erakargarriak, eta hori zaintzen ahalegindu gaitzke gurasoak.

### Zer egin dezakegu?

- Eskola orduz kanpoko jardueretan euskara zaindu: udalekuak, kirol jarduerak, antzerkia, aisialdi jarduerak...
- Zaindu etxean euskarak duen lekua: musika, telebista, ipuinak, jostailuak...
- Beraiekin euskarazko ekitaldietara joan: antzerkia, pailazoak, zinema...
- Zuen inguruan euskara gutxi entzuten bada, euskaraz bizi diren herri eta eskualdeetara joan eta saiatu bertakoekin harremanak egiten

Horretaz gain, gurasook ere euskarazko produktuekin gozatu: irratia, musika, telebista... Seme-alabei euskara eskaintzea garrantzitsua da, baina gurasoontzat ere hizkuntza baliagarria eta erakargarria dela ikusi behar dute. Honetan ere eredu izan beharko genuke.